

Elene Gonzalez Aranburu

E maila • **Aipamena**

Nire biografia:

Nere izena Elene da, hamaika urte ditut eta Beasainen bizi naiz, nere guraso eta ahizpa txikiarekin. Andramendi ikastolan ikasten dut Lh6 eta datorren urtean DBH ere bertan hasiko dut. Kirola eta eskulanak egitea ditut gustoko. Asteburuetan familiarekin edo lagunekin planak egitea atsegin dut. Sari honek ilusio handia egin dit. Elene



BOST BOTERE

-Dutxatzeko ordua da Miren! Bostetan geratu zara lagunekin ezta? Hasi beraz prestatzen, berandu ibiliko zara bestela.

-Banoa ama, marrazki hau bukatu eta hasiko naiz prestatzen.

Miren 12 urteko neska irribarretsu bat da, imajinazio handikoa. Bere ama, aita eta amamarekin bizi da Elizondon, pisu txiki batean. Ile marroia du, luzea eta kizkurra, gehienetan jasota eramaten du. Begiak berdeak, oliben kolorekoak, amama Piliren antzera. Kirola gustuko du, igeriketa eta saskibaloia bereziki. Herriko saskibaloi klubeko kidea da. Marrazkilari oso ona da, txikitatik izan du trebetasuna horretan. Marrazki pertsonalizatuak marrazten ditu urtebetetze-opari gisa lagun eta familiakideentzat.

Astebururo bezala, bere lagunekin kalera joateko geratu da gaur. Maialen, Eli, Jon, Martin eta Miren dira gaur ateratzekoak. Ikastola ondoko auzoan dagoen plaza batean elkartzen dira beti. Eliren etxe azpian dagoen plaza da, hau gertuen bizi dena da eta beti berandu iristen dena. Eli da Mirenen lagun minena, haurtzaindegitik ezagutzen dira eta asko maite dute elkar. Afizio asko konpartitzen dituzte; zinea, saskibaloia, patinak... Askotan joaten dira zinera elkarrekin eta ikusten dituzten pelikulen sarrerak kolekzionatzen dituzte. Egunen batean Hollywoodeko pelikula bateko protagonistak izango direla amesten dute sarritan.

Bostak direla jakinarazteko elizako kanpaiak jotzen hasi direnean, Maialen, Miren eta Jon dagoeneko besteen zain daude. Martin bere amaren autotik jaisten ari da. Mendian baserri batean bizi da eta ezin du oinez jaitsi herrira. Dena gaintitzen badu, kurtso amaieran gurasoek patinete elektriko bat erosiko diotela zin egin diote. Inoiz baino gehiago ikasten ari da hori lortzeko.

Bostak eta laurdenetan, tinbrea jo diotenean, Eli jaitsi da lagunengana. Denak daude dagoeneko. Maialenek herrian jarri duten gozoki denda berrira joatea proposatu du, gauza bereziak saltzen dituztela entzun du, sekula probatu gabe dituzten litxarkeria desberdinak.

PROSA

Lagunek baiezkoa esan eta harantz joaten hasi dira.

-Aaaaala, izugarria da! Zenbat gauza! Zer da hori? Eta beste hori?- esan du Jonek sartu direnean ahozabalik.

Denda ez da oso handia baina bete beteta dago, fruitu lehor poltsaz betetako kaxak, dorreak osatzen, kolore guztietako erregaliz poteak, plastikozko tuperrak litxarkeriaz beteak,... 5 lagunak, poltsa bana eskuetan dutela, denda barruan aurrera eta atzera dabiltza, zer aukeratuko duten ezin erabaki.

-Zer izango ote da hau?- galdetu die Mirenek lagunei ixkin batean dagoen pote barruan dauden 5 goxoki txiki seinalatuz. Potea erdi hutsik dago eta ez dituzte ulertzen jartzen dituen hizkiak, txinatarrez idatzita daude.

-Kolore bakoitzak zapore desberdin bat izango du agian?- Galdetu du Martinek.

-Har dezagun bat bakoitzak eta jakingo dugu! Nik morea hartuko dut.- Mirenek.

Horrela, bakoitzak kolore desberdin bat hartu du, Mirenek morea, Martinek arroxa, Jonek berdea, Maialenek horia eta Elik urdina. Hori eskuetan dutela, plazara bueltatu dira. Bertan elkarrekin paktu bat egin dute, gozoki misterioetsua guztiek batera jango dituztela, Martinek bat, bi eta hiru zenbatzean. Esan eta egin.

-Oso gozoa dago- dio Jonek.

-Nirea garratz xamarra dago baina gustatu zait- erantzun du Maialenek.

-Mmmmmm...- gainerako hiruek ez dute ezer esan, baina aurpegian ikusten zaie gustuko dutela eta momentuaz disfrutatzen ari direla.

Ondoren, Mirenek saskibaloiko kantzara joatea proposatu du eta guztiek, Elik izan ezik, buruarekin baieztatu dute.

-Zertara joan behar gara baloirik ez badugu?- esan du honek.

-Hori egia da... alperrik joango gara baloirik gabe.- Martinek.

Maialenek beste ideia bat eduki du.

-Parkera joan gaitezke paseotxo bat emanaz. Bertako banku batean hitz egiten egon gaitezke.

Bi mutikoei, hasiera batean, ez zaie oso gustuko ideia iruditu, baina beste aukera hobeagorik egon ezean, onartu, eta parkeko bidea hartu dute.

Bidean, Miren, istorio bat kontatzen hasi zaie, aurreko egunean saskibaloia entrenamenduan bere taldekide bati pasatako zerbait. Oso hitzuna da eta beti dauka abentura edo kontutxoren bat bere lagunekin partekatzeko. Kontu kontari doala, eskuak eta besoak mugitzen, bere behatz erakusletik more koloreko txinparta antzeko bat atera da eta bide bazterreko landare

PROSA

bat jo du. Hau, bapatean, more kolorekoa bihurtu eta erre egin da. Gertatutakoaz konturatu den bakarra Jon izan da, Mireni begira doalako oinez.

-Baina nola egin duzu hori Miren?- galdetu dio Jonek txundituta.

-Ez dakit!- Mirenek aho zabalik.- Eskua mugitu dudanean gertatu da, nik ez dut ezer berezirik egin.- Erantzun dio oso harrituta bere eskuetara begira, gertatutakori azalpen bat aurkitu nahian.

-Zer gertatu da ba? Zertaz ari zarete?- Galdetu du Maialenek.

-Ba... Mirenek eskuarekin, hobe esanda, bere eskutik ateratako zerbaitekin landare hori erre duela. Ikusi, kiskalduta dago! – Erantzun dio Jonek.

-Bai, seguru! Jajaja. Eta ikusi, handik elefante bat hegan dator!- erantzun die Maialenek barrez lehertzen.

-Benetan! Nik ikusi dut nire begiekin!- Jonek, gertatutakoa ulertu nahian.

-Utzi txantxak beste baterako Jon! Nere anaia txikiak agian sinistuko lizueke, baina...- Martinek.

Bapatean, Jonek, Mirenek egindako mugimendu bera egin eta landarea berpiztu egin du, berriz ere kolore berdea berreskuratuz. Lagunak ahozabalik daude.

-Eta hori? Baina nola egin duzu?- galdetu du Maialenek oso txundituta.

-Zer arraio pasatzen ari da?- Galdetu du Martinek arduratuta. -Gozoki horiek dira honen arrazoia. Baina besteok ere jan dugu eta ez zaigu ezer berezirik pasa. Eli, Maialen, zuek ez duzue ezer nabarmenik somatzen? Egin froga!.

-Ados, frogatuko dut.- Erantzun du Elik pentsakor.

Elik eskuak mugitu ditu, jarraian, ondoko tabernan eserita dagoen mutiko baten ur basoa bere eskuetara etorri zaio, poliki eta tantorik jaurti gabe.

-Ikusi al duzue hori? Hori da zure boterea Eli!- Esan du Maialenek ikara aurpegia ezin izkutatuta.

-Maialen, orain zure txanda da, ea zein den zure boterea. Azkar, urduri nago!- Jonek.

Maialen eskuak mugitzen eta astintzen hasi da, baina ez da ezer berezirik pasa. Aurpegia guztiz aldatu zaio. Oso triste sentitu da botere berezirik ez duela ikusi duenean.

-Lasai Maialen, ez triste jarri. Nik ere ez dut.- esan dio Martinek lasaitu nahian.

-Baina zuk ez duzu frogatu! Ez dakizu oraindik duzun edo ez.- Erantzun dio Maialenek.

Momentu horretan, ondotik bi gizonezko pasa dira eskuetan txakur soka bana eusten. Batek txakur txiki bat darama paseoan eta besteak ehizeko txakur bat.

-Erabat aspertuta nago parke honetara etortzeaz, kakaz beteta dago. Ea udaberria heltzen den eta berriz mendi aldera eramaten nauen jabeak.- Esan dio ehiz txakurrak besteari.

-Nik faltan botatzen dut makilarekin jolastea, nire jabea belauneko minez dabilenetik, paseoak oso aspergarriak dira.- Erantzun dio txikiak.

PROSA

Martinek aurpegia aldatu du. Konturatu da lagunek ez dutela berak entzundakoa entzun. Baina berak txakurrak esan dutena ulertu du.

-Zuek ez... ez duzue hori ee entzun ezta? Ai ene, hau erotzekoa da. Txakur horien arteko elkarriketa entzun dut, eta ulertu egiten diet!- Azaldu die Martinek lagunei.

-Zeeer? Hori da beraz zuri egokitu zaizun boterea! Ikusten nola zuk baduzun bat? Ni naiz ezer berezia tokatu ez zaion bakarra...- Maialen oso triste jarri da.

Bapatean, urrutian, mutil bat dantzan hasi da eta bostak korrika joan dira ikustera. Iritsi direnean, ahoa irekita geratu dira dantza nola egiten duen ikusita eta amaitu duenean denak txaloka hasi dira. Momentu horretan Maialen lurretik oinak banandu eta gorantz lebitatzen hasi da.

-Maialen, baduzu botere bat!- esan du Mirenek.

-Bai, lebitatu egin dezakezu!- erantzun du Jonek pozik.

-Orain guztiok botereren bat dugula, 5 botereak deitu daiteken klub bat osatu dezakegu.-
Proposatu du Maialenek.

-Miren, Mireeeeen!!!! Lo hartu duzu marrazten zeunden bitartean! Esnatu zaitez, lagunekin geratuta zaude eta! - Esan du amak esnatu nahian.

-Mmmm... bai ama. Prestatzera joango naiz.- esan du Mirenek erdi lo. Ametsetan ari ote zen?

-Zer egin behar duzue gaur lagunak kalean?- galdetu dio amak jakin minez.

-Ez dakit, baina gozoki denda berrira joatea proposatuko dut!- erantzun du Mirenek motxila hartzen duen bitartean.

-Zer gozoki denda berri?- esan dio amak. -Ez dago gozoki denda berririk herrian eta!

AMAIERA